

NONDIK DOAZ ZURE IDEALAK?

—Nondik doaz ba zure idealak»? itandu eutsan abadegai gazte batek bere aineko beste mutil gazte bizi bati. Eta badakizue zer erantzun eutsan?

—Gaur ez dok «idealik» erreten, mutil. Nongo karrozea nazala uste dok ba? Gaur «Fortuna» erreten joagu guk gazteok.

Gauza bat itandu eta beste batekin erantzun. Norantza joian itandu eta zer erretzen eban esan. Zer izateko asmoa ete eukan itaunka asi eta zer konsumitzen eban erantzunez gelditu.

Ideala esaten danean, norbaitzuek aintzinako «Ideales» zigarroak ulertzea baleiteke gaurko egunean ere. Baina idealak beste gauza bat esan gura dau: norantza goazen, zer egiteko eta zer izateko asmoa ete dogun, geure geroaz ze idea daukagun or barruan, geure buru eta biotzean; buruan eta biotzean esan dot, eta batez ere biotzean esan bearko neuke, burutik sortu arren, biotzera ez badoaz idealok eta asmook izoztu eta il egiten diralako.

Mafalda komikia ikusten dabenak ondo bereizten ditue ango pertsonaiak. Irudiak ikusi ez arren, sarritan asmatuko leuke nor dabilen berbetan. Susanita batek andra aundi izan gura dau, eta orren inguruan doaz bere amesak; Manolotok munduko merkataririk onena eta aundiena izateko asmoak ditu, eta eskolako zereginen artean, bere merkagintzat publizitatea zelan egingo asmatzen jarduten da. «Ideal batzuk dira buruan sortu eta biotzeko epeltasunean

indarra artzen doazan idealak. Batzuek osagile, irakasle, gaisozain, legelari, al-baitari, injinieru edo orrelako zerbait izan gurako dabe. Gitxiren batzuk fedearren zerbitzari ere bai: kristianu al-karteari kristinauago izaten lagundu katekista lez, abade lez, fraile lez, monja lez. Oneek be idealak dira.

Ideal batzuk ogibide lez artu leiz, gizar-tearen zerbitzuan norbere poltsikoari ere begiratuta aukeratuak. Beste ideal batzuk ez doaz dirua egitera zuzenean, zerbitzu bat bizi gura dabe eta zerbitzu orren neurria ez da karteratik artzen. Bearbada karteratik begiratu ezkeru motelagoak ikusten dira, ondasun-iturri eskasagiak.

Bizitzearen atarian, gaztediak beti egin bear izaten dau onelako itaunen bat, eta bere buruari egin deutsan itaunari erantzunez zuzendu bearko dau bizitzea. Ames batzuk egin, bizitzea era batera zuzentzea pentsatu eta beste bide batetik joan bearrak, bere lekutik kanpora dagoan azur baten mina emon bear dau gitxienez. Ideala batetik joango jako eta bizitzea bestetik.

Danok ere ondo geunke geure buruari noizbeinka gure idealak nondik doazan itandutea, baina gazteak batez ere, bizitza bati aurpegia emon bear deutsanak, ezin dau itaun ori aldendu. Urte barriaren azikeria ona da orretarako.

Eta gazteei, fedea aintzakotzat daukien guztiei, auxe itanduko neuskie: Nondik doaz zure idealak?

Sabin BARRUETABEÑA, c.p.